

ISSN: 2530-6561
2023ko abendua
Bilbao

hegoak zabalduz

Hegoa, Nazioarteko
Lankidetzeta eta
Garapenari Buruzko
Ikasketa Institutua

Universidad del
País Vasco /
Euskal Herriko
Unibertsitatea
UPV/EHU

Zaintza eta zahartzaroa: XXI. mendeko erronkak

Matxalen Legarreta-Iza, Uzuri Castelo Moñux,
Alaitz Uriarte Goikoetxea, Maider Barañano Uribarri,
Marina Sagastizabal Emilio-Yus

Zaintza eta zahartzaroa: XXI. mendeko erronkak¹

Matxalen Legarreta-Iza.
Soziologia eta Gizarte Langintza Saila.
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
matxalen.legarreta@ehu.eus

Uzuri Castelo Moñux.
Soziologia eta Gizarte Langintza Saila.
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
uzuri.castelo@ehu.eus

Alaitz Uriarte Goikoetxea.
Soziologia eta Gizarte Langintza Saila.
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
alaitz.uriarte@ehu.eus

Maidar Barañano Uribarri.
Soziologia eta Gizarte Langintza Saila.
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
maider.baranano@ehu.eus

Marina Sagastizabal Emilio-Yus.
Soziologia eta Gizarte Langintza Saila.
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
marina.sagastizabal@ehu.eus

1 Lan hau Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak finantzaturako "Impulso de una línea de investigación e innovación en materia de cuidados sociales y sociosanitarios en la Comunidad Autónoma de Euskadi" [erreferentzia: SUBDIR 22/17] proiektuaren markoan garatu da.

Aurkibidea

1. Sarrera	8
2. Zaintza eta Zahartzaroa: definizioak eta antolaketa	9
2.1. Zertaz ari gara zaintzaz ari garenean?	9
2.2. Zertaz ari gara zahartzaroz ari garenean?	10
2.3. Nork asetzen ditu zaintza beharrak eta nola?	12
3. Zaintza Krisia: jatorria eta ondorioak	16
3.1. Erreproduzio iraultza eta biziraupenaren demokratizazioa	16
3.2. Lanaren banaketa sexualaren aldaketak	17
3.3. Ongizate estatuaren gainbehera	18
3.4. COVID-19ak eragindako osasun krisia	19
4. Zaintza Politikak eta Mendekotasunaren Arreta	21
4.1. Mendekotasun Legearen garapena Espainiako Estatuan	21
4.2. EAEko mendekotasun eta zaintza sistema	22
5. Zaintza Sistema Publiko Komunitario baterantz	24
6. Erreferentzia bibliografikoak	26

Erredakzio kontseilua

Zuzendaritza: Iker Etxano
Irati Labaien

Kideak: Eduardo Bidaurratzaga
Xabier Gainza
Amaia García
Itziar Mujika
Unai Villena
Iker Zirion

hegoak zabalduz euskarazko material bildumak ikuspegi zabal batetik garapenarekin lotutako askotariko gaiak jorratzea du helburu. Testuak didaktikoak eta dibulgazio mailakoak dira, eta gaien inguruko sarrera edo ikuspegi orokorra ematen dute.

Zaintza eta zahartzaroa: XXI. mendeko erronkak

Egileak: Matxalen Legarreta-Iza, Uzuri Castelo Moñux, Alaitz Uriarte Goikoetxea, Maider Barañano Uribarri, Marina Sagastizabal Emilio-Yus

hegoak zabalduz - 31. zk. 2023ko abendua
ISSN: 2530-6561



www.hegoa.ehu.eu

UPV/EHU. Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81
48015 Bilbao
Tel.: 94 601 70 91
hegoa@ehu.eu

UPV/EHU. Carlos Santamaría Zentroa
Elhuyar Plaza, 2
20018 Donostia-San Sebastián
Tel. 943 01 74 64
hegoa@ehu.eu

UPV/EHU. Arabako Campuseko Liburutegia
138. posta-kutxa
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz
Tel. 945 01 42 87
hegoa@ehu.eu

Diseinua eta Maketazioa: Marra, s.l.

hegoak zabalduz material bilduman argitaratzen diren testu guztiak,
Creative Commonsen lizentzia honekin argitaratzen dira:

Aitortu-EzKomertziala-LanEraterririkGabe 3.0 Espainia.



Lizentzia osoa:

<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/legalcode.eu>

Finantzatzailea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

Zaintza eta zahartzarora: XXI. mendeko erronkak

Laburpena: XXI. mendearen laurden bat betetzear gauden honetan, bizi-itxaropena inoiz baino gehiago luzatu da eta biztanleria osoan adineko pertsonen duten pisuak gora egin du nabarmen. Horrek eragina dauka zahartzarora bizi eta ulertzeko moduetan. Zahartzarora mendekotasun egoerekin eta zaintzarekin soilik lotu ezin bada ere, bizitzaren etapa horretan zaintza beharrak areagotzen dira, eta zahartzarora eta zaintza etorkizuneko erronkak bilakatzen dira. Nola erantzun erronka horiei? Lau ataletan banatuta, testuak begirada feminista eta dekolonial batetik galdera horri erantzutea du helburu. Lehenengo atalak zaintza eta zahartzarora definitzen ditu eta zaintzaren gizarte antolaketan jartzen du arreta. Bigarrenak zaintza krisia deritzona deskribatzen du, jatorrian eta ondorioetan sakonduz. Hirugarrenak zaintza politikak eta mendekotasunaren arreta du hizpide, Espainiako Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko testuinguru konkretua aintzat hartuta. Laugarren eta azkenak aurreko ataletan identifikatutako erronkei erantzuna emateko zaintza sistema publiko-komunitarioaren aldeko apustua egiten du. Oro har, lan osoko hausnarketak eta proposamenak begirada feminista eta dekolonialetik egin ditugu.

Gakoak hitzak: Zahartzarora, zaintza, feminismoa, dekolonialitatea, zaintza sistema publiko komunitarioa.

Care and aging: challenges in the twenty-first century

Abstract: As the second quarter of the 21st century approaches, life expectancy and the proportion of older people living in most societies continues to increase. This affects the way aging is experienced and understood. While aging should not be associated only with dependency and the need for care, the requirement for different forms of support does increase with old age, making care provision and aging key challenges for the future. What answers are available? Organized into four parts, this text responds to these questions from a feminist and decolonial perspective. The first section offers a critical definition of care and aging, and focuses on the social organization of care. The second describes the so-called care crisis, detailing its origins and consequences. The third addresses policy responses with respect to care and dependency in the specific context of the Spanish State and the Basque Autonomous Community. The fourth and final section advocates for a public-communitary care system as a response to the challenges identified.

Key words: Old age, care, feminism, decoloniality, public-communitary care system.

1. Sarrera

Egunerokoan zaintzari erreferentzia egiteko askotariko moduak erabiltzen ditugu eta horrek gauza ezberdinez ari garela pentsatzea eragin eta nahasmena sor dezake. Hortaz, lehenbiziko eginkizuna zaintzari esanahi konkretua ematea da. Gure zaintzaren definizioa feminista eta dekoloniala da. Zaintza bizitza osoan zehar guztiok daukagun behar gisa ulertzen dugu, interdependentzia baita gizartearen ardatza. Hala ere, lan honetan epe luzeko zaintzara mugatu dugu begirada, hau da, adinekoen eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzara. Horregatik, zahartzaroa bizi eta ulertzeko moduetan sakondu dugu ere.

Bizitza osoan zehar besteen beharra dugu, baina zaintza beharra intentsoagoa eta nabarmenagoa da bizitzaren lehengo eta azken etapan, umetan eta zahartzaroan. Hori dela-eta, zahartzaroa gaixotasunarekin eta mendekotasunarekin identifikatzen da maiz. Hala ere, lan honetan zahartzaroaren inguruko estereotipoak zein ikuspegi biomedikoa ekiditea dugu helburu, aspektu sozialean arreta jarritz. Begirada horretatik agerian geratzen da pertsona nagusiak zaintza lanen protagonistak direla, ez soilik, ordea, zaintza jasotzen dutelako, baizik eta zaintza eman egiten dutelako ere. Umeak edota mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzen dituztenak, sarritan, adineko pertsonak dira.

Zaintza eta zahartzaroa beren testuinguruan ulertu behar dira. Gu Euskal Autonomia Erkidegoan (aurrerantzean, EAE) zentratu gara batez ere, COVID-19aren osasun krisiaren osteko garaian. Osasun krisia zabalagoa eta lehenagokoa den zaintza krisiaren markoan kokatzen dugu. Azken urteetan bizitza luzatu da eta adineko pertsonak gero eta gehiago dira. Horrek zaintza beharrak areagotu ditu. Zaintza hornidura ez da neurri berean hazi, ordea. Horrek zaintza krisia eragin du. Krisiaren nondik norakoak azaltzeko, biziraupenaren demokratizazioan, lanaren banaketa sexualaren aldaeran eta ongizate estatuaren gainbeheran jarri dugu arreta. Halaber, pandemiak zaintza krisiaren areagotze eta ikusgarritasunean izandako rola ere deskribatu dugu.

Besteak beste, COVID-19ak izan duen eragina dela-eta, azken urteetan zaintzak garrantzi nabaria bereganatu du politika publikoetan. Beraz, interesgarria da, halaber, epe-luzeko zaintzaren inguruko politikak eta esku-hartzeak ezagutzea. Horrekin batera, feminismoak zaintzaren banaketari, eskubideei eta politika publikoei egindako ekarpenak azalerratu ditugu. Izan ere, zaintza eraldaketa sozialerako aukera gisa irudikatzen dugu, sistemaren hutsuneak identifikatu eta horiei aurre egin edo sistema bera iraultzeko erreminta moduan.

2. Zaintza eta Zahartzaroa: definizioak eta antolaketa

Zaintza askotariko testuinguruetan garatzen da eta jarduera anitz hartzen du bere barruan: arropa eskegitzea, triste dagoen lagun batekin kafe bat hartzea, ospitale bateko ohe ondoan gaua pasatzea, ezin duena dutxatu eta janzea, garbitzea... Izan ere, herri batzuetan zaintza lanak egin ahal izateko aurrebaldintza da ur bila joatea, egurra batzea edo bizibidea lortzeko beste zenbait jarduera egitea, nahiz eta ipar globalean maiz ez ditugun halakoak zaintza lantzat hartzen. Horregatik, zaintza testuinguruari loturiko jarduera da, momentu historikoaren eta espazio geografikoaren arabera aldatzen dena. Gainera, zaintzak harremana du, gizakiez gain, animalia eta landareen bizitzak eusteko egiten ditugun jarduerekin.

Zahartzaroa ulertzeko erak ere askotarikoak dira, nahiz eta gure testuinguruan sarritan irudi estereotipatuak gailendu. Zaharra baliorik ez duenarekin edo aktiboa ez denarekin lotzen du maiz kapitalismoak, eta gaztetasuna eta berritasuna goraiatzen ditu. Zahartzaroa heriotzarekin, gaixotasunarekin eta mendekotasunarekin ere lotzen da.

Zaintzaren eta zahartzaroaren ulerkeretan botere-harremanak islatzen dira, baita haien gainean eraikitako ezagutza akademikoan ere. Kontzeptu bat definitzen dugunean, hautu bat egiten dugu: errealitatearen zati bat enfokatzeko. Horrek, ezinbestean, beste elementu batzuk enfokatu gabe uztea dakar. Enfokatu dugun errealitatearen zati horri izaera unibertsala ematen diogunean sortzen da arazoa.

2.1. Zertaz ari gara zaintzaz ari garenean?

Tradizionalki, zaintzaren inguruko literatura akademikoa iparralde globaleko herrietatik garatu da, eta horrek errealitate batzuk argitara ekartzea ekarri du, beste batzuk bigarren planoan utziz. Idea horri lotuta, giza mugikortasunean aditua den Parvati Raghuram geografoak (2016) kontraesan hau azpimarratu du: zaintzaileak mundu globalizatu batean mugitu arren, zaintzaren definizioa eta ulermena ez dira hain dinamikoak izan, eta ipar globaletik harago garatutako ezagutzak ezkutatu dituzte. Hortaz, zaintza definitzea ez da kontu erraza, definizioa testuinguruaren arabera ere badelako. Ulerkera zabalaren aldeko apustua eginez, Berenice Fisher filosofoak eta Joan Tronto politologoak (1990:40) honela definitu zuten: "Bizi garen munduari eusteko eta iraunarazteko egiten ditugun ekintza guztiak barnebiltzen ditu zaintzak, bertan ahalik eta hobekien bizi ahal izateko helburuarekin". Ikuspegi honek adierazten du elkarren mendeko eta inguruaren mendeko garela. Beraz, zaintzak mendekotasun bikoitza adierazten du.

Elkarrekiko mendekotasunari dagokionez, pertsonen biziraupenera eta ongizate fisikoa zein emozionala sustatzera begirako ekintza eta harreman multzoari –material, afektibo eta sinbolikoak– erreferentzia egiten dien kontzeptu soziokultural eta erlazionala da zaintza. Hortaz, bizitza sostengatzeko egiten diren lan multzo, kate eta harreman konplexu guztiek osatzen dute. Zaintza, gainera, norabide bikoitzekoa da: guztiok gara, neurri eta intentsitate ezberdinetan bada ere, zaintza emaile eta hartzaile. Izan ere, pertsonen mendekotasun eta zaurgarritasun egoerak areagotzean –haurtzaroan, zahartzaroan, aniztasun funtzionala edota gaixotasun egoera dela medio– modu nabarian areagotzen bada ere, guztiok berezko dugun beharra da zaintza. Hala ere, lan honetan batez ere epe luzeko zaintzan jarriko dugu arreta.

Ekomendekotasunari dagokionez, pertsona guztiok, mundu honetan bizi garen izaki bizidun guztiok bezala, bizirauteko oinarriko baliabideak behar ditugu: ura, janaria, aterpea... Baliabide horien beharrak erakusten du ekomendekoak garela. Ez dago pertsonen zaintza posiblerik, ez dago bizitza posiblerik, ingurumena zaindu gabe. Horrek eragiten du zaintzaz ari garenean, besteak beste, krisi klimatikoan ere arreta jartzea, biztanleria osoaren biziraupen bitartekoei eragiten baitie, komunitate batzuk ingurumen kolapsoko egoeran jarritz.

Elkarren mendekoak eta ekomendekoak bagara eta zaintza guztion beharra bada, egiten dugun oro da zaintza? Fisher eta Trontoren (1990) definiziotik abiatuz, pertsonen zaintzak askotariko jarduerak barnebiltzen dituela ondoriozta dezakegu, hainbat modu eta momentutan gertatzen direnak. Zaintza lanen analisia errazteko, ordea, hiru dimentsio identifikatu ditugu: materiala, subjektibo-erlazionala eta soziala.

Dimentsio materialari buruz hitz egitean, ekintza konkretuak aipatuko ditugu, komuna garbitzea edo harrikoa egitea, adibidez. Argi dago noiz hasi eta bukatzen diren. Dimentsio horretatik begiratuta, zaintza zenbagarria da. Zaintza lana da, eta denbora eta energia gastuak eragiten ditu. Beraz, zaintza lanek ekonomian daukaten pisua estima daiteke Ordaindu gabeko etxeko lanaren balioa EAEko Barne Produktu Gordinaren (BPG) % 27,7 izan zen 2018an, hau da, 21.296 milioi eurokoa². Horrek esan nahi du lan hori BPGan aintzat hartuz gero, BPGa heren bat haziko litzatekeela.

Hala ere, zaintza ez dagokio soilik ekintza konkretuei, sarri denbora ez-linealak, aldiberekotasunak eta neur ezin daitekeenak gurutzatzen baitu. Gainera, ekintza erlazionala ere bada eta subjektibotasunarekin lotua dago. Hori da zaintzaren bigarren dimentsioa. Ez da hain erraz neurtzen, ez bukatutzat ematen. Nola zehaztu noiz eskaini diogun arreta nahikoa beste pertsonari? Tradizionalki, zaintzaren alderdi subjektiboa eta erlazionala emakumetasunari estuki lotuta agertu zaigu, emakumeek jaiotzatik izan duten abilezia izango balira bezala, maitasunarekin, goxotasunarekin, ardurarekin, pazientziarekin eta, orokorrean, alderdi emozionalarekin lotutako jarduerak emakumeon esentzia direla esateraino. Hori emakumetasunaren eta gizentasunaren gizarte eraikuntzaren ondorio zuzena da.

Zaintzaren dimentsio sozialak egiturazko faktoreetan jartzen du arreta. Pribilegioek eta zapalkuntzek zeresana daukate zaintza lanen banaketa ez-orekatuan. Zaintza lanek ez dute aitortzarik gure jendartean. Fisher eta Trontok (1990) adierazi moduan, horietan jarduteak boterearen eta pribilegioaren galera dakar, hortaz, bereziki subjektu subalternoek hartzen dute zaintza beren gain. Merkatua erdigunearan duen sistema ekonomiko kapitalistan, zaintza lanak inork ez ditu egin nahi. Zenbat eta pribilegio gehiago, orduan eta zaintza lan gutxiago egiten saiatzen gara. Zapalkuntza ardatzek gurutzatzen dute zaintza lana: generoa, klase soziala, arraza edo jatorria.

Illo horretan, Anoop Nayak geografoaren arabera (2023), zaintza dekolonizatzeak inplikatzeko du, besteak beste, mendebaldeko ezagutza irekitzea eta mundu osoko bestelako subjektuek (arrazializatuak, queerak, indigenak,..) gorpuztutako bizipen, esperientzia eta ikuspegiak erdigunera ekartzea. Baita iraganetik datozen harreman kolonialek egungo harreman kolonialak sostengatzen dituztela gogoan edukitzea ere. Raghuramek (2016) aldarrikatzen duenez, zaintzaren testuingurua eta tokiko kontingentzia funtsezkoak dira zaintza eta hari lotutako etika definitzeko.

Bide luzea geratzen zaigu oraindik zaintzaren gaineko ikuspegia dekolonizatzeko, eta ezingo diogu testu honetan erronka horri erantzun. Haatik, argitu nahi dugu gure hurbilpenak zaintzaren ikuspegi zabaletik abiatu nahi duela, eta egungo mendekotasunari eta zahartzaroari lotutako zaintza sistema sakonago ezagutzeko baliagarria izan nahi duela.

2.2. Zertaz ari gara zahartzaroaz ari garenean?

Egun, aldaketa soziodemografikoen ondorioz, zahartzaroaren etapa luzatu egin da. Gero eta urte gehiago bizi gara eta horrek bizitza ibilbidearen pertzepzio berria ekarri digu. *Laugarren adinaz* edo *zahartzaroaren zahartzeaz* hitz egiten dute askok. Zahartzaroa ulertzeko era horrek aldaketak dakartzan adineko pertsonak nortzuk diren, zein ezaugarri dituzten eta jendartean zein leku betetzen duten, eta

2 23/12/2020/12/23ko prentsa oharra: CUENTA SATÉLITE DEL TRABAJO DOMÉSTICO. 2018. Eustat-Euskal Estatistika Erakundea: <https://eu.eustat.eus/indice.html>

bete beharko luketen, zehazteko orduan. Belaunaldi arteko harreman berriak eta adinekoei zuzendutako jarduera eremu berriak ere sortzen ditu. Une aproposa da, beraz, zahartzaroaren definizioan eta ulerkeretan sakontzeko. Batez ere ipar globalean eta XXI. mendean kokatu dugu gure hausnarketa.

Oro har, jendartean zahartzaroari buruzko ikusmoldeak anibalenteak dira. Alde batetik, zahartzeari balioa ematen diogu, adineko pertsonak bizi osoan garatutako jakinduria eta esperientzia gorai patzen dugunean. Bestetik, gaixotasunak, gaitasun fisiko eta kognitiboaren gainbeherak, mendekotasunak zein bakardadeak zahartzearen alde iluna adierazten dute. Horrekin batera, zahartzaroaren alderdi negatiboak zaintza beharren instituzionalizazioarekin, sare sozial eta familiarren hausturarekin eta autonomiaren zein ekoizpen eta salerospen gaitasunaren galerarekin lotu ditu irudikapen hegemonikoak. Kapitalismo industrialaren logikari jarraituz, bizitza hiru etapatan antolatuta dagoela ulertzen da: gaztaroa merkaturako prestakuntza garaia da, helduaroa merkaturako parte hartzekoa eta zahartzaroa erretiroarekin lortzen da. Horrek, hala ere, kanpoan uzten du emakumeen bizi esperientzia, merkatu laboraleko sartu-irtenak eta etxeko lana eta enplegua uztartzeak ezaugarritzen duena. Era berean, zahartzaroa erretiroarekin lotzen du eta, hortaz, merkatu laboralean parte hartzeak ematen dituen eskubideetatik eta errekonozimendutik kanpo.

Abiapuntu horretatik, zahartzaroa aztertzeko bi begirada nagusi nabarmentzen dira: *desloturaren teoriak* eta *aktibitatearen teoriak* (Del Barrio et. al, 2018). Lehenak azaltzen du zahartzearekin batera bizitza aktiboarekiko pixkanakako deskonexio prozesu bat gertatzen dela. Horren arabera, egunerokoan normaltasunez egiten ziren jarduerak pixkanaka bertan behera uzten dira zahartzaroan eta pertsonaren eta gizartearen arteko pixkanakako erretiratze edo deslotze prozesua gertatzen da. Bigarrenak defendatzen du zahartzaroan bizi kalitatea mantentzeko funtsezkoa dela aktibo egotea. Bigarren horretan zentratuko dugu arreta. Halaber, *aktibitatearen teorian* zahartzaroan aktibo nola egon ulertzeko bi perspektiba gailentzen dira: *zahartzaro aktiboa* eta *zahartzaro aktibista*.

Zahartzaro aktiboak erreferentzia egiten dio adineko pertsonen merkatu laboraleko jarduerak zein ordaindu gabeko beste jarduera batzuk (senideen zaintza eta boluntariora, esaterako) egiteko duten gaitasunari eta zahartu ahala bizitza osasungarri, independente eta autonomoak bizitzen jarraitzearen alde egiten du (Del Barrio et. al, 2018). Definizio orokor horretatik, ordea, ohikoa da dimentsio bakarreko interpretazio edo hurbilketa egitea, batez ere ekoizpen eta merkatu arloan edo osasun arloan arreta jarritz, adibidez, enplegu garaiaren luzapena proposatuz edota osasuna hobetzeko aktibitate fisikoa bultzatuz. Horrek zahartzaro aktiboa produktibitatearen edo osasunaren logikaren arabera ulertzea eragiten du, eta alde batera uzten ditu beste eremu batzuk, hala nola, jendartean parte hartzea, arlo soziala, kulturala, espirituala eta zibikoa. Hori da, batez ere, Europar Batasuneko zahartzaroaren inguruko politiken oinarrian dagoen zahartzaroaren ulerkerak.

Hortaz, begirada horretatik zahartzaroaren irudi positiboak eta ahaldunduak sustatzeko aurrerapen garrantzitsuak egin diren arren, "zahartzaro ona" zer den eta zer ez den idealizatzeak "independentzia, gaztetasuna, eraginkortasuna eta produktibitateari" lotutako balio eta ideologia neoliberalak goresteko arriskua du (Roanova, 2010). Norabide horretan, diskurtso profesional eta instituzional asko ere zahartzaro aktiboaren paradigmak kokatu dira eta zahartzaroan negozio eta kontsumo aukera berriak identifikatu dituzte. Horren adibide da populazioaren zahartzea herrialdeen garapen ekonomikorako baliatzen duen eta interes politiko nabarmena pizten duen *zilarrezko ekonomia* (*silver economy*).


Zahartzaro aktiboak ez bezala, *zahartzaro aktibistak*, zaharrak gizarte honen eraldaketaren eragile aktibo direla aldarrikatzen du: ahots propioa daukatela eta hala adierazten dituztela beren eskubideak eta nahiak (Mogollón eta Fernández, 2020). Beraz, ekoizpen eta merkatu logikatik harago zahartzeak dakarren politizazio kolektiboan jartzen du arreta, jendartean parte hartzea lurralde esparru jakin bateko erabaki sozial eta politikoetan zeresana izatea dela argudiatuz. Agerian uzten du adinekoek berek eta berentzat sortutako lehentasunen eta premien agenda dutela. Halaber, begirada horren arabera, zahartzaroaz jardutean bizitzako esparru guztiak kontuan hartu behar dira, eta ezinbestekotzat jotzen da adinekoek gizarteari egiten dioten ekarpena, zaintza lanaren, boluntarioraren eta belaunaldien

arteko ezagutzaren transmisioaren bidez. Zahartzaroan ahalik eta denbora gehien autonomiaz eta duintasunez bizi zezakeen du. Ikuspuntu hori geure egiten dugu lan honetan. Hala ere, kontuan izan behar dugu parte hartze aktiboa egingarriagoa dela *zahar-gazteentzat* zaharrentzat baino, muga biologiko guztiak ezin baitira gainditu ahaleginarekin.

Hortaz, baieztatu dezakegu azkenaldian zahartzaroa aukeraz betetako aldi moduan irudikatzen direla. Hala ere, gure jendartearen zahartzaroarekin lotutako estereotipoak hedatuta daude oraindik. Horri *adinkeria* deitzen zaio eta diskriminazio modu bat da. Adinekoak erabakitzen dituzten pertsonak balira tratatzea edo ezaugarri bateratuak dituen kolektibo homogeen moduan definitzea *adinkeria* moduak dira. Jarrera horiei aurre egiteko garrantzitsua da ekoizpen- eta merkatu-logikaz harago askotariko adineko pertsonen gizek dituzten tokia eta egunerokoan egiten dituzten ekarpena balioan jartzea.

2.3. Nork asetzen ditu zaintza beharrak eta nola?

Jendarteak eta ekoizpen- eta merkatu-sistemak gaina joko lukete eta ez lukete iraungo, egunerokoan bizitzak sostengatzeko funtsezkoak diren lanak egin gabe utziko balira. Zentzu horretan, bizi garen mundu komun hau, eta ingurune soziopolitiko eta fisikoa, ulertzeko oinarriko ikuspegia ere ematen du zaintzak. Zaintza sozialki eta kulturalki eraikitakoa da, izan ere, hura ulertzeko eta kudeatzeko moduak aldakorrak dira jendarte batetik bestera. Norabide horretan, Mary Daly eta Jane Lewis politologoek garatutako (2000) *social care* (zaintzaren antolaketa soziala) eta Shahrarazavi ekonomialariak proposatutako (2007) *care diamond* (zaintzaren diamantea) kontzeptualizazioek zaintzaren hornidurak hartzen dituzten forma eta modalitate konkretuak ulertzen laguntzen digute hainbat gizek eta testuinguru soziokulturaletan, lau eragile edo aktore sozial nagusien artikulazioan arreta ipinita: familia, merkatua, estatua eta komunitatea (ikus 1. irudia):



Iturria: Norberak egina (Razavi, 2007).

Aipatutako lau eragileen arteko loturak, interakzioak eta logikak aztertu dituzte aurrez landutako ikerketek (Daly eta Lewis, 2000; Razavi, 2007). Interakzio horiek eta esparru bakoitzaren pisua ezberdina da testuinguru soziokulturalaren arabera. EAEko kasuan ez dago zalantzarik: oraindik ere zaintzaren ardura nagusia familiak hartzen du bere gain, eta familia da eguneroko ongizatearen birbanaketaren zutabe nagusia, administrazio publikoak, merkatuak eta komunitateak ere parte-hartzen duten arren. Zaintza antolaketa eredu *familista* da, Europako beste herrialde mediterraneoetan bezala.

Diamantearen erpin bakoitzak zaintza lanak nola eta zein neurritan betetzen dituen aztertu aurretik, gailentzen den esparrua edozein dela ere, azpimarratu behar dugu guztietan zaintza lanak feminizatuta daudela eta era prekarioan egiten direla. Hala, bai eguneko zentroetan eta egoitzetan (estatuak), bai etxe barruko ordaindutako zaintzan (familia), baita familiek egiten dituzten kontratazioetan ere (merkatua), zaintza lanak betetzen dituzten pertsonen gehiengo zabala emakumeak dira: hamarretik zortzi baino gehiago (% 81,5, % 84,7³, % 89 eta % 96⁴ dira emakumeak esparru bakoitzean, hurrenez hurren). Gainera, familian emakumeek dohainik (gehienak) edota zaintzaile ez-profesionalaren dirulaguntza jasota (gutxi batzuek jasotzen dute eta hilabetean 154 € eta 524 € artekoa da⁵) egiten dute zaintza lana. Egoitzetako langileek beren maila berean dauden osasun sektoreko langileek baino % 30 gutxiago kobratzen dute (Comas-D'Argemir eta Bofill-Poch, 2022).

1) Familia, zaintza eragile gisa. Gure testuinguruan familiak funtsezko funtzioa betetzen du zaintzaren beharrak asetzeko orduan, tradizionalki haren esku egon baita zaintzaren ardura osoa. Gainera, familian emakumeen erantzukizuna izan da zaintza. Familia esatean, batez ere, eredu nuklear eta heterosexualari buruz ari gara. Alabaina, egun familiek hala moduz eta kostata eusten diote gertukoaren zaintza beharren hazkundeari, emakumeen lan merkatuzko orokortuaren, gizonezkoen erantzukizun txikiaren eta baliabide publiko nahikorik ez izatearen ondorioz. Fenomeno horiek, bereziki, Europa hegoaldeko herrialdeak ezaugarritzen dituen *zaintza eredu familista* krisian dagoela erakusten dute.

Zaintza ereduaren krisiaz ari bagara ere, ez dirudi horrek generoaren araberako aldaketa sakonik eragin duenik, izan ere, gaur-gaurkoz, emakumeek jarraitzen dute familian zaintzaile nagusiak izaten. Epe luzeko zaintzaren alderdi soziokulturalak jorratu dituzten ikerketek erakutsi dutenez, zaintzaren ardura bereziki familiarteko betebeharrak afektibo eta moralekin lotzen da. Hala ere, zaintzaren ardura bere gain nork hartu behar lukeen (famiak edo estatuak) era ezberdinean ulertzen da testuinguru kultural eta soziopolitikoaren arabera. Gure testuinguru hurbilean, azken hamarkadan Espainiako Ikerketa Soziologikoen Zentroak (CIS) egindako 3009/2014ko azterketak erakutsi duenez, zaintza behar intentsiboak dituzten etxeetako kasuen % 88,1ean zaintza lanen zatirik handiena familiako kideren batek hartzen du bere gain, eta zaintza aukera eta baliabide ezberdinen artean⁶. Zaintza "etxean eta familiarengandik" jasotzeko nahi eta espektatiba kulturalaren ondorioa da hori. Gainera, gero eta gehiago dira zaintza behar duen pertsona etxean artatzeko zaintzaile bat kontratatzen duten familiak, eta emakume atzerritarren presentzia handia da esparru horretan.

2) Merkatua, zaintza eragile gisa. Zaintzaren antolaketan eta horniduran parte-hartzen duen beste esparru garrantzitsu bat da merkatua. Merkatuak etxeko zaintzaileen kontratazio pribatua edota erakunde publikoek azpikontratatuak zaintza zerbitzuak barnebiltzen ditu, baita familiei bideratuak

3 EAEko landunak, zentro motaren, lurralde historikoaren eta titulartasunaren arabera. 1994 – 2020. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika. Eustat-Euskal Estatistika Erakundea: <https://eu.eustat.eus/indice.html>

4 LANEKO, MIGRAZIOETAKO ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA (2018) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren Estadistiken Datu Basea. Gizarte Segurantzaren afiliatutako zaintzaile ez-profesionalak, 2022ko iraila. Euskadi: <https://www.mites.gob.es/es/estadisticas/index.htm>

5 Familiaren ingurunean zaintzeko zaintzaileei laguntzeko prestazio ekonomikoa. Bizkaiko Foru Aldundia: <https://www.bizkaia.eus/>; Familia ingurunean zaintzetarako prestazio ekonomikoa -FIZPE-INFORMAZIO OROKORRA. Gipuzkoako Foru Aldundia: <https://egoitza.gipuzkoa.eus/>; Familia ingurunean zaintzetarako prestazio ekonomikoa (FIZPE). Arabako Foru Aldundia: <https://egoitza.araba.eus/>

6 Centro de Investigaciones Sociológicas 3009| CUIDADOS A DEPENDIENTES: <https://www.cis.es/>

prestazio ekonomikoak ere. Azken hamarkadetan, ohiko bihurtu da familian etxeko lana eta zaintza lana egiteko etxeko langileak kontratatzea. Etxeko langileen lan baldintzak kaxkarrak dira. Kontratuarekin lan eginez gero, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera, etxeko langileen asteko 40 orduko gutxieneko soldata 1.080 €-koa da hilean (Gizarte Segurantzaren kuota deskontatu aurretik)⁷.

Etxeko langileak, gainera, sarritan emakume migratuak izaten dira. Gizarte Segurantzako datuen arabera, kontratua duen hamar etxeko langiletik lau atzerritarrak dira (% 42,2)⁸; aldiz, ATH-ELE Etxeko Langileen Elkartek 2023an arreta eskaini dien 544 langileetatik, gehiengoa da atzerritarra (% 88,7). Iturri beraren arabera, barneko langile moduan lan egiten duten emakumeen artean ia denak atzerriko nazionalitatea dute (% 98), eta Europar Batasunetik kanpokoak direnen eta barneko langile moduan lan egiten dutenen ia erdia (% 46,40) egoera administratibo irregularrean dago⁹. Barneko langile moduan lan egiten duten emakumeek, bereziki, baldintza gogorretan egiten dute lan: ia atsedunik gabe eta orduka lan egiten dutenek baino soldata baxuagoak jasota. ATH-ELE Etxeko Langileen Elkarteko datuen arabera, astean zehar barneko etxeko langileen ia hiru laurdenek (% 72,57) astean 60 orduetik gora egiten du lan, hamarretik bik adierazten dute ez dutela atsedena denborarik (% 21,9) eta erdiak (%54,51) egunean bi orduko atsedena dutela¹⁰.

Esan beharra dago familian etxeko langileak kontratatzea ez dela berria; izan ere, landa eta hiriguneetako emakume langileak aspaldidanik aritu izan dira familia aberatsetan neskame, haurtzain edota adineko pertsonen zaintzaile. Berritasuna da ipar globaleko herrialdeetan familia eta emakume autoktonoek migratutako emakumeak kontratatzen dituztela zaintza lanak egin ditzaten. Horrela, lanaren banaketa sexualak nazioarteko izaera hartzen du eta iparralde globaleko eta hegoalde globaleko herrialdeen arteko botere harremanak agerian uzten ditu. Hau da, *lanaren nazioarteko banaketa sexuala* eta kolonialismoa birproduzitzen ditu, iparralde globaleko beharrak hegoalde globaletik asez.

Testuinguru horretan, *zaintza kate globalak* (Hochschild, 2001) sortzen dira. Izan ere, milioika emakumek eta, neurri txikiagoan, gizonek, ipar globaleko herrialdeetara migratzen dute haurren eta adinekoen zaintza lanak betetzeko, sarritan modu irregular, prekarizatu eta erdi-esklabistan. Horrela, maiz, adineko pertsonen zaintza beharrak asetzeko orduan, egoitzara joatea baino lehen, etxeko langile bat kontratatzea aukeratzen dute familiarek. Horrenbestez, zaintza eredu *familistak* eraldatu eta *migrante bat familian* eredura egiten du jauzi, iparralde globaleko herrialdeetara etorritako hegoalde globaleko emakumeen zaintza lan prekarizatuaren bidez (Bettio et al., 2006). Izan ere, etxeko eta zaintza lanak desarautze eta ikusezintasun irizpideen arabera antolatzen dira gure ekonomian. Etxeko lana ez baita lan erregimen orokorraren arabera arautzen, baizik eta erregimen berezi baten arabera. Beraz, etxeko enpleguaren eta zaintza lanaren ezaugarri dira prekaritatea eta irregulartasuna, lege estaldura eta gizarte babes eskasa, eta hor, gainera, Atzerriartasun Legearen baldintzek eragiten dute, egoera prekarioak eta indarkeriazkoak areagotuz. Desparekotasun eta esplotazio egoera horiek direla eta, zenbait autorek azpimarratu dute zaintzaren azterketan ikuspegi dekoloniala lantzearen beharra. Ikuspegi horrek agerian jartzen ditu iparraldearen eta hegoaldearen arteko interdependentziak, baita horietan klasearekin, generoarekin eta arrazarekin gurutzatzen diren zapalkuntzak ere (Nayak, 2023).

3) Estatuak, zaintza eragile gisa. Estatuak rol garrantzitsua du zaintzaren antolaketari dagokionez, estatua gai baita zaintzak familiaratik ateratzeko edo, kontrara, familian mantentzeko. Esaterako, estatuak haurtzaindegi publikoak zabal ditzake edota amatasun baimenak luzatu; hala, zaintza lanak desfamiliarizatu edota familiarizatu egiten dira. Era berean, estatuak berma dezake pertsona guztiak dutela herritartasuna izateko eskubidea, eta, hala, zaintza kate globalek eragiten duten indarkeriari

7 2022ko estatistikak. ATH-ELE Etxeko Langileen Elkartea: <https://ath-ele.com/eu/>

8 LANEKO, MIGRAZIOETAKO ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA (2018) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren Estadistiken Datu Basea. Gizarte Segurantzaren afiliatutako zaintzaile ez-profesionalak, 2022ko iraila. Euskadi: <https://www.mites.gob.es/es/estadisticas/index.htm>

9 2022ko estatistikak. ATH-ELE Etxeko Langileen Elkartea: <https://ath-ele.com/eu/>

10 2022ko estatistikak. ATH-ELE Etxeko Langileen Elkartea: <https://ath-ele.com/eu/>

eta prekarizazioari ate bat itxi, edota behartu ditzake egoera irregularrean dauden pertsonak ezkutuan bizitzera eta beren lan eta bizi baldintzak are gehiago prekarizatzen, zaintza lanek merkatu pribatuan duten presentzia eraginez. Beraz, nolakoa estatuaren rola, halakoak izango dira gainerako zaintza esparruen baldintzak ere.

Estatuak eskaintzen dituen zerbitzuak eta prestazioak garrantzitsuak dira zaintzaren beharrak asetzeko. Eguneko zentroek eta egoitzek, esaterako, bereziki garrantzitsuak dira pertsonen mendekotasun egoera eta zaintza beharrak areagotu eta etxean bizitzen jarraitzeko baldintzak okertzen direnean. Eredu familiar eta komunitariotik hurbilen dagoen baliabidea direnez gero, eguneko zentroak onarpen sozial handiagoa izaten dute egoitzek baino, horiek, sarritan, azken aukeratzat jotzen baitira. Izan ere, adinekoak eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak etxean ez zaintzeko aukera egiteak erru sententzia eragiten du familietan –bereziki, alaba eta emazteengan–. Beraz, senitartekoen zaintza beharrak egoitzan asetzera familiaren beraren gaitasunak gainditzean eta muturreko egoeretan hartzen den erabakia izaten da askotan.

Edonola ere, estatuak eskaintzen dituen zerbitzuak indartzeko edota ahultzeko aukera egiten du, zaintza eredu ezberdinei bide emanaz. Hala, EAEn erakunde publikoek eskaintzen duen zaintza horniduran egoitzen pisua jaitsi ahala (2008an prestazioen % 29 izatetik 2020an % 13,8 izatera) familiako kideak zaintzeko dirulaguntzak igo egin dira (% 29,4tik % 40,4ra 2008 eta 2020 artean)¹¹. Zaintza instituzionalizatutik familiak emandako zaintza eredurantzko joera adierazten du horrek.

4) Komunitatea, zaintza eragile gisa. Komunitatean garatzen diren harreman sozialek ere –lagunak, bizilagunak, boluntario elkarteak, besteak beste– zaintza beharrak asetzen parte hartzen dute. Komunitate loturak familia zaintzaren sostengu garrantzitsuak dira. Komunitatearen zaintzan duen presentzia nabarmenagoa da landa eremuan eta herri txikietan, hiriguneetan baino. Hala ere, auzo eta erakundeen iniziatibak direla eta, hiriguneetan ere zaintza-sare komunitarioak indartu daitezkeela erakutsi dute azken urteetan aurrera eramandako ekimenek, etxebizitza kolaboratiboek (*co-housing*), adibidez (Mogollón eta Fernández, 2019). Gainera, zaintza komunitarioa nabarmen garatu zen pandemiari lotutako konfinamendu garaian, udalerrri eta auzoetan sortutako zaintza sareen bitartez (Comas-D'Argemir eta Bofill-Poch, 2022). Zaintza harreman komunitarioak sendotzeak laguntzen du zaintzaren ardura modu kolektibo eta partekatuan ulertzen. Halaber, zahartu nahi dugun moduari buruzko hausnarketak pizten ditu eta zahartzaroan ahalduzko prozesuak sustatzen, *zahartzaro aktibistaren* inguruko proposamenekin bat etorriz.

Zaintza komunitarioaren inguruko interes instituzionala, akademikoa eta diskurtsiboa gero eta nabarmenagoa den honetan, etorkizuneko zaintza agertokietan komunitatea ezinbesteko eragile soziala izango dela aurreikus dezakegu, gizarte eta testuinguru ezberdinetako zaintzaren antolaketa soziala aztertu eta ebaluatzeko orduan. Horren adibide dira Gipuzkoan garatzen ari diren Tokiko Zaintza Ekosistemak¹², helburu dutenak, pertsonen eta udalerrien beharrezko kontuan hartuz, osasun zerbitzuen, gizarte zerbitzuen eta komunitatearen arteko koordinazioa bermatzea. Zaintza HerriLab estrategiaren markoan, oraingoz hamalau udalerritan ari dira garatzen, baina Lurralde Historiko osoko zaintza eredu bilakatzea dute xede. Zaintza komunitarioa gaur egungo zaintza eredu eraldatzeko tresna izan daitekeen arren, kontuan hartu behar dugu komunitatearen agentzia gaitasuna estatuak zaintza beharrak asetzeko duen ardura gutxitzeko ere erabil daitezkeela, edota merkatuari bide berriak irekitzeko. Hau da, erakunde publikoek beren gain hartu behar duten zaintza komunitatearen esku uzteko arriskua dago. Gainera, zaintza komunitarioa sustatzen duten esperientziak, askotan, emakumeek dohainik lan egiteko beste esparru bat bilakatu dira: familiaren zabalpena, haren ordezkapena baino gehiago. Hortaz, ikuspegi feministatik, garrantzitsua da komunitateak zaintzaren izaera feminizatua, aitortzarik eza eta profesionalizaziorik eza ekiditeko mekanismoetan begirada jartzea.

11 Autonomiarako eta Mendekotasunari Arreta eskaintzeko Sistema (SAAD). IMSERSO: <https://imsero.es/>

12 Tokiko Zaintza Ekosistemak Gipuzkoako Foru Aldundia Eusko Jaurlaritzaren babesarekin garatzen ari den Zaintza HerriLab estrategiaren barruan daude. Tokiko Zaintza Ekosistemen inguruko informazio gehiago ondorengo webgunean dago eskuragarri: <https://www.zaintzaherriab.eus/eu/>

3. Zaintza Krisia: jatorria eta ondorioak

Azken hamarkadetako aldaketa demografiko, sozial, ekonomiko eta politikoek agerian utzi dute orain arteko zaintza antolaketaren eredia krisian dagoela. Izan ere, zaintza beharrak handitu diren arren, ez dira horiek asetzeko baliabideak areagotu. Hortaz, egungo zaintza ereduaren jasangarritasuna kolokan dago. Zaintzaren krisiaz hitz egiten dutenek azken hamarkadetan gertatutako prozesu soziokulturalek eta kapitalismo globalaren garapenak bereziki hiriguneetan izan duen eraginean jartzen dute begirada. Azaltzen dute familiek ezin diotela zaintza beharrei erantzun egoera soziala eta demografikoa aldatu delako. Hiru faktore nagusi aipatzen dituzte: erreprodukzio iraultza, lanaren banaketa sexualaren aldaketak eta ongizate estatuaren gainbehera. Horiei, laugarren bat gehitu diogu, jendartean zaintzaren beharra agerian utzi duena eta egungo zaintza eredia zalantzan jarri duena: COVID-19ak eragindako osasun krisia.

3.1. Erreprodukzio iraultza eta biziraupenaren demokratizazioa

Erreprodukzio iraultza da (MacInnes eta Pérez-Díaz, 2009) zaintza krisia azaltzen duen lehenengo fenomeno. Familia eredu tradizionalaren egituraketan aldaketak sorrarazi ditu: guraso bakarreko familien eta dibortzioen tasa handitu da, jaiotza tasak murriztu dira eta bizi itxaropena luzatu da. Zentzu horretan, familian, genero harremanetan eta erreprodukzioan izandako balio aldaketek, indibidualizazioak eta bizi baldintzen hobekuntzak eragin nabarmena izan dute jendarteren bizimoduetan.

Sarritan, aldaketa demografiko horiek gizartearentzat mehatxu eta kostu direla ulertzen da. Hala, jaiotza tasen jaitsieraren eta bizi itxaropena luzatzearen joerak ekarri du *biztanleriaren zahartzea* izendatu dena. Terminoaren izaera alarmista ekiditeko, ordea, Julio Pérez Díaz demografoak *biziraupenaren demokratizazioari* buruz hitz egitea proposatzen du. Haren hitzetan: "Gizateriak ugalketa iraultza bizi du, eta horrek, historian estreinako aldiz, ugalkortasuna murriztea ahalbidetzen dio (...). Horren arrazoa da jaioberriek beren arbasoek baino bizitza askoz ere luzeagoa biziko dutela. Bi egoera berri horiek, hau da, bizialdi luzea demokratizatzeak, eta, ondorioz, ugalkortasun txikiagoa posible izateak, populazio piramideak egitura berria izatea dakarte" (Pérez Díaz, 2010: 34).

EAEko populazioaren bizi-itxaropena nabarmen hazi da ia mende erdian: gizonen bizi itxaropena 69,6 urtekoa zen 1976an, eta 80,7 urtekoa da 2021ean, eta emakumeena 76,0 eta 86,4koa, hurrenez hurren¹³. Hala, gaur egun, Europar Batasuneko herrialdeen artean bizi-itxaropen handienetakoa du EAEk¹⁴. Jaiotze tasak aldiz, nabarmen egin du behera: 1.000 biztanleko 39,6koa zen 1975ean, eta 14,7koa 2020an¹⁵, Europar Batasuneko herrialdeen artean baxuena¹⁶. Beraz, datuek biztanleria pixkanaka zahartzen ari dela adierazten dute. Gainera, emakumeek gizonek baino bizi itxaropen handiagoa dute. Horrek eragiten du biztanleria zenbat eta zaharragoa izan, emakumeen proportzioa handiagoa izatea: 65 urtetik gorakoen artean, hamarretik sei emakumeak dira (% 57,5).

13 Bizitxaropena jaiotzean, Euskal AEn, heriotza-kausaren, lurraldearen eta eskualdearen arabera, sexuari eta urteari jarraiki. 1976-2021. Eustat-Euskal Estatistika Erakundea: <https://eu.eustat.eus/indice.html>

14 Bizi-itxaropena jaiotzean EB 27an. Gizonak (urteak). 2010-2021 eta Bizi-itxaropena jaiotzean EB 27an. Emakumeak (urteak). 2010-2021. Eustat-Euskal Estatistika Erakundea: <https://eu.eustat.eus/indice.html>

15 Euskal AEko bizirik jaiotzak eta jaiotza-tasa 1.000 biztanleko, lurralde historikoaren arabera. 1975-2022. Eustat-Euskal Estatistika Erakundea: <https://eu.eustat.eus/indice.html>

16 EB27ko jaiotza-tasa (%o biztanleko). 2010-2021. Eustat-Euskal Estatistika Erakundea: <https://eu.eustat.eus/indice.html>

Dena den, bizi itxaropena luzatzea lorpen soziala izanagatik ere, ezin da begi-bistatik galdu horrek zahartzaroari loturiko mendekotasun egoerak eta zaintza beharrak areagotzen dituela. Mendekotasun egoeran dauden pertsonen artean ere, gehiengoa emakumea da. 2019an, adibidez, 18.885 adinekok erabili zituzten egoitza zerbitzuak, hamar erabiltzailetik zazpi (% 69,4) emakumeak izan ziren, eta, adinak gora egin ahala, emakume kopuruak gora egiten du¹⁷. Beraz, zahartzaroaz eta mendekotasunaz ari garenean, emakumez ari gara batez ere. Horregatik, ezinbestekoa da, epe luzeko zaintza zerbitzu eta esku hartzeak eskaintzeko orduan, emakumeen nahi eta behar espezifikoak aintzat hartzea.

Hala ere, azpimarratu nahi dugu zahartzaroa ezin dela mendekotasunarekin soilik lotu, hala egiteak zahartzaroari buruzko ikuspuntu murrizta elikatzen du eta. Adineko biztanleriak ekarpen handia egiten dio jendarteari. Adibidez, 60 urte eta gehiagoko pertsonak dira EAEn etxeko lanean eta zaintza lanean denbora gehien ematen dutenak: astean 20 ordu eta 46 minutu. 35-59 urte bitartekoek, berriz, 20 ordu eta 25 minutu, eta 35 urtetik beheragokoek, 11 ordu eta 47 minutu (Legarreta eta Sagastizabal, 2020).

3.2. Lanaren banaketa sexualaren aldaketak

Zaintza krisia azaltzen duen bigarren fenomeno da lan merkatu formalean emakumeen sarrera orokorra, eta aldi berean gizonezkoak etxeko eta zaintza lanetan era orokortuan inplikatu ez izana. Mugimendu feministaren bultzadak eta gizartearen kontzientziazioak eragin dute feminitateari lotutako genero mandatuak aldatzen joatea. Horrela, emakumeek tradizionalki senideen zaintzarako –hala nola, seme-alabak, gurasoak, aita-amaginarrebak– izan duten prestatsuna eta funtzio soziala aldatuz joan da garai berrietan, eta horren adierazle da, modu desorekatuan bada ere, gero eta emakume gehiago soldatapeko lanean zein goi-mailako postuetan aritzea. Alderantziz, gizonezkoen inplikazioa zaintzan txikia da oraindik. Gainera, ideia aurrerakoiek eraginda, gizonezkoak haurren zaintzaren ardura errazago onartzen hasi badira ere, ez da hala gertatzen mendekotasun egoeran dauden pertsona eta adineko pertsonen zaintzarekin.

Egoera horrek, emakumeen presentzia bikoitza eragin du, enpleguaren eta zaintza lanen arteko uztarketa gatazkatsua agerian utzita. Alde batetik, agerian geratu da emakumeek zaintza lanetarako zuten denbora eta prestutasuna mugatua dela. Bestetik, emakumeen lan merkaturatzeak ez du zaintza lanen berdintasunezko banaketa ekarri, oraindik ere haiek baitira zaintza ardurei denbora eta esfortzu gehiago eskaintzen dizkietenak. Testuinguru honetan, feminismoak azaleratu egin ditu emakumeen enplegarritasuna sustatzera bideratutako kontziliazio politikek sortzen dituzten kontraesanak, politika horiek ez baitute sexuaren araberako lan banaketa alde aurretik berrikusi. Horrela, salatu du kontziliazio politikak, funtsean, hazkunde ekonomiko handiagoa ziurtatzeaz arduratu direla, genero ekitatea sustatzearen kaltetan.

Etxeko lana eta zaintza lanean gizonen eta emakumeen parte hartzea aztertzen duten lanetan bi joera nabarmentzen dira: alde batetik, genero arrakalaren murrizketa azaleratzen dutenak (*genero konbergentziaren teoria*), eta, bestetik, desberdinkeraren iraunkortasunean arreta jartzen dutenak (*iraultza geldiararen teoria*). Hala eta guztiz ere, ikerketa gehienak bat datoz: genero arrakalaren murrizketaren arrazoi nagusia da emakumeek gaur egun etxeko eta zaintza lan gutxiago egitea, eta ez horrenbeste gizonen inplikazioa handitu izana (Legarreta eta Sagastizabal, 2020). Denboraren erabilerrari buruzko datuek erakusten dutenez¹⁸, emakumeek gizonen baino etxeko eta zaintza lan gehiago egiten jarraitzen dute eta, lan merkatuan parte hartzen dutenean, haien eguneroko lan zama osoa gizonena baino ordubete handiagoa da. Hala, emakumeek gizonen baino zazpi ordu gehiago

17 Adinekoen panorama estatistikoa 2021. Eustat- Euskal Estatistika Erakundea:

<https://eu.eustat.eus/indice.html>

18 Denboraren erabilera. Eustat-Euskal Estatistika Institutua: <https://eu.eustat.eus/>

egiten dute lan astean: merkatu laboraleko lanaldi osoaren baliokidea. Horregatik, denbora gutxiago dute aisialdirako, bizitza sozialerako, beren burua zaintzeko edo parte hartze soziopolitikorako.

Gainera, etxeko lana eta zaintza lanaren banaketari dagokionez azken hamarkadetan genero arrakala murriztu bada ere, bereziki etxeko lanean gertatu da murrizketa, ez horrenbeste zaintza lanetan (Legarreta eta Sagastizabal, 2020). Halere, etxeko lanaren "nukleo gogorra" oraindik ere emakumeen esku dago: egunero egin behar diren lanak, gogokoenak izaten ez direnak, emakumeen esku daude (harrikoa, sukaldea, garbiket...). Horregatik, etxeko lanetan dagoen genero arrakala murrizteko arrazoia da zeregin batzuei denbora gutxiago eskaintzen zaiela, edo, besterik gabe, zeregin horiek jada egiten ez direla (adibidez, lisatzea) edo lanaren zati bat ordaindutako etxeko langileek egiten dutela. Etxeko langileen kontratazioa behin eta berriz errepikatzen den estrategia da bikote heterosexualetan, etxeko eta zaintza lanaren banaketaren inguruan bikotekideen artean sortzen den gatazka saihesteko.

3.3. Ongizate estatuaren gainbehera

Zaintza krisia azaltzen duen hirugarren fenomeno garrantzitsua ongizate estatuaren krisia eta politika neoliberalen gorakada da. Feminismoak salatzen du ongizate estatua genero-ideologia zehatz baten gainean eraiki dela, gizonak egiten dutena herritartasun eskubideetarako oinarri gisa erabiliz. Horren adibide dira estatuak lan merkatuan emakumeen absentiaren aurrean duen tolerantzia soziala eta, aldi berean, gizarte tolerantzia etxeko eremuan gizonen absentiaren aurrean.

Krisi ekonomiko-finantzarioaren testuinguruan, 2010. urteaz geroztik, politika ekonomikoaren joerak soldaten debaluzioa, lan merkatuaren malgutasuna eta defizit fiskalaren murrizketa indartzera jo du, inbertsio publikoa bere horretan mantenduz eta zergak handituz. Horrek, ezinbestean, ongizate sozialera bideratutako politikak kaltetu ditu, mendekotasunera eta zaintza beharretara bideratutako zerbitzuen garapena oztopatu du, ongizatearen eguneroko kudeaketa zaildu du eta jendarteko eta erakundeekiko mesfidantza areagotu du. Gainera, krisiari aurre egiteko austeritate politikak bultzatzeak agenda kontserbadoreak eta patriarkalak indartzeko arriskua ekarri du. Horren adibide da, adibidez, aukera berdintasunerako eta kontziliaziorako politiken helburuak desagertu izana (Campillo, 2014). Testuinguru horretan, zaintzaren erantzukizun publikoa familiarri esleitzeko mehatxua indartzen da eta zaintza lanak sektore publikotik eta merkatutik berriro etxeko eremura bideratzen dira. Horrela, egoera monetarioak okerrera egiten duenean, zaintza "birfamiliaratzen" da: familiak, eta haien barruan emakumeak, sistemaren koltxoi bihurtzen dira, eta egoera ekonomiko zailak moteltzeko ardura hartzen dute beren gain (Pérez Orozco, 2010).

Lina Galvez eta Paula Rodríguez (2011) ekonomialariek adierazten dute zaintzaren izaera kontraziklikoa dela. Horren adibide dira askotariko herrialdeetan eragina izan duten krisi ekonomikoetan identifikatu dituzten hiru jarraibideak: 1) krisiak emakumeen lanaren areagotzea indartzen du, batez ere, lan ordaindu gabea; 2) gizonen enplegua suspertzen da, eta emakumeena, aldiz, are gehiago prekarizatzen du, eta 3) oparotasun ekonomikoko garaietan lortutako gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako aurrerapenetan atzerapenak eragiten ditu. Hortaz, lan merkatuari eskainitako denbora gero eta gehiago prekarizatzen eta desarautzen da krisi garaian, eta horrek eragiten du etxeko eta familiarako denbora malgutu behar izatea, egunerokoan kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazkak eragindako tentsioak arindu ahal izateko.

Horrenbestez, krisi ekonomiko-finantzarioaren garaiko austeritate neurriek Jane Lewisek (2002) adierazitakoa azaleratzen dute: oro har, ikuspegi neoliberaletik ulertzen dela gizarte babes sistema bera arazoa dela. Horren ondorioz, gizarte-politika batzuk –hala nola, aberastasuna belaunaldiz belaunaldi birbanatzearekin lotutakoak; pentsio-sistema, adibidez– ikuspegi horretatik ebaluatzen

direnean, biztanleria zahartzeak belaunaldien arteko gatazka dakarrela azpimarratzen du, eta horrek elkarrekikotasun sistemaren iraunkortasuna kaltetzen duela.

3.4. COVID-19ak eragindako osasun krisia

Zaintza krisia azaltzen duen laugarren fenomenoak COVID-19ak eragindako osasun krisia da. Horren berri ematen du Dolores Comas-D'Argemir antropologoak zuzendutako ikerketak¹⁹ (Comas-D'Argemir eta Bofill-Poch, 2022). Pandemiak zaintza lanean izandako eragina du aztergai, zaintza beharrak asetzen dituzten pertsonen bizipenetan arreta jarri (familia, zerbitzuak, etxeko langileak eta zaintza komunitarioa). Bertan parte hartu genuen lan hau idatzi dugun ikertzaileok.

2020. urtearen hasieran COVID-19aren hedapen azkarrak eragin handia izan zuen mendekotasun egoeran zeuden adineko pertsonentzako arretazerbitzuetan eta zaintzaileengan, eta aurrekaririk gabeko ahultasun eta ziurgabetasun egoeran jarri zuen osasun eta zaintza sistema. Konfinamendu neurrien ondorioz, kutsatzeko arrisku handiena zuten pertsonen elkarbizitzarako guneetan –egoitzak, kasu– sartu-irtenak eta bisitak debekatu zituzten, eta langileak babesteko neurriak onartu arte mendekotasunaren arretara zuzendutako zerbitzuak –eguneko zentroak, adibidez– eten zituzten. Horrek ia ezinezko bihurtu zuen zaintza etxetik kanporatzea. Hortaz, zaintzaren ardura, berriro ere, eta are gehiago, etxeetako emakumeei esleitu zitzaion.

Pandemiaren kalterik handiena adineko pertsonen eta emakume zaintzaileek jasan zuten. Familiako zaintzaileek, etxeko langileek, etxeko zein egoitzetako langileek, egoera material eta emozional bereziki gogorretan lan egin behar izan zuten: beren buruak eta zaintzen zituzten pertsonak kutsatzeko beldurrarekin, babes neurri eskasekin – hasieran, batez ere–, lanorduak luzatuz eta eginbeharrak biderkatuz. Etxeko langileen kasuan, gainera, askok lana galdu zuten, zaintzen zuten pertsona hil zelako edo kontratatzen zituen familia beldur zelako langileak artatu behar izan zuten haien senitartekoa kutsatuko zuela. Halaber, egoitzetan konfinamendua, orokorrean, jendartean baino gehiago luzatu zen, eta senitarteko bat egoitzan isolatuta izateak familietan tristezia, segurtasun falta eta erru sentimendua eragin zituen. Egoiliarrek bizi zuten isolamendu egoera, bisitak egiteko debekua eta eragozpenak, eta zentroaren eta komunitatearen artean komunikatzeko zailtasuna izan ziren senitartekoen kezka nagusiak. Isolamendu egoera horrek egoiliar askoren osasun fisiko, kognitibo eta emozionala zeharo kaltetu zuen.

Orokorrean, gaixotu eta hil zen pertsona kopuru handia izan zen, horietako gehienak adinekoak. Horrek, eta zaintza arloko langileak bizi izandako egoera larriek, agerian utzi zituzten zaintza sistemaren egiturazko arazoak. Horien artean nabarmentzekoak dira zaintza lanen profesionalizazioan dauden hutsune nabarmenak, lan baldintzen prekarietatea eta zaintza lanek duten jendarte aitortza eskasa. Horrekin lotuta, gaixotasunak adineko pertsona ahulenengan izandako ondorio latzek ezbaian jarri zituzten egoitzen arreta eredua eta adineko pertsonen giza eskubideak ere. Pandemiak kolokan jarri zuen herritarren eta gizarte zerbitzuen arteko zubia. Halaber, agerian utzi zuen oraindik ere jendartean *adinkeria* hedatuta dagoela. Horren guztiaren adierazle izan zen, adibidez, egoitzen krisiak izan zuten eragin mediatikoa.

Osasun krisiak mahai gainean jarri zuen zahartzaroaren eta bazterketa sozialaren arteko harremana: horren isla dira, besteak beste, egoiliarrek arreta medikoa izateko oztopo administratiboak – ez hainbeste EAEn, baina bai beste testuinguru batzuetan, adibidez Madrilen–, bakardade eta isolamendu egoerak, eta arrakala digitala. Zahartzaroa homogeneizatzen eta zaharrak subjektu pasibo

19 El cuidado importa. Impacto de género en los y las cuidadoras de mayores y dependientes en tiempos de la covid-19. Universitat Rovira i Virgili: <https://www.antropologia.urv.cat/es/investigacion/proyectos/cumade/>

eta zaugarritzat jotzen dituzten diskurtsoak ere nabarmen hedatu ziren jendartean. Pandemiarekin batera, zahartzaroaren despertsonalizazioa eta estereotipo negatiboak hedatu ziren eta goraiatu ziren bizitzaren azken etaparen devaluazioa indartzen duten balioak: hala nola, autosufizienteak izatea eta osasuntsu egotea. Horri lotuta, esan beharra dago *adinkeriak*, pertsona zaharrak ez ezik, belaunaldi gazteenak ere jomugan jarri zituela: lehenengoak ahul eta arriskutsutzat hartzeaz gain, bigarrenei birusarenganako jarrera arduragabeak egotzi zitzaizkien. Horrek eragin zuen belaunaldi arteko tentsioak areagotzea eta modu estereotipatuan eztabaidatu izana.

Aipatutako guztiaz gain, pandemiak elkar-laguntza sareetan ere eragina izan zuen, norabide bikoitzean. Alde batetik, distantzia sozialak, konfinamenduak eta kutsatzeko beldurrak familiarterko, lagunarterko eta auzokideen arteko harremanak ahuldu zituen. Bestalde, era berean, jada existitzen ziren elkartasun eta zaintza sareak indartu eta berriak sortu zituen Euskal Herriko auzo eta herri gehienetan.

4. Zaintza Politikak eta Mendekotasunaren Arreta

Epe luzeko zaintzarekin lotutako gizarte politiken bitartez, zaintza auzi indibiduala eta familiarra izatetik erantzun kolektiboa behar duen auzia izatera pasatu da. Hau da, estatua bere gain hartzen hasten da jatorriz familiar, etxekotasunari eta eremu pribatuari esleitutako ardura. Zaintzaren krisiaren eta sakoneko eraldaketaren testuinguruan sortu eta garatu dira epe luzeko zaintzei lotutako politika publikoak, bai Europar Batasunean, baita Euskal Herriko lurralde administratiboetan ere.

Alde batetik, Europar Batasunak Europako zaintza estrategia garatu du berriki, epe luzeko zaintza ere barne hartzen duena²⁰. Hiru helburu nagusi ditu: 1) epe-luzeko zaintzaren eskuragarritasuna, prestasuna eta irisgarritasuna bermatzea, 2) kalitatezko zerbitzuak ematea eta 3) zaintzaileak badirela bermatzea, profesionalizazioaren eta sare informalak babestearen bidez. Gainera, arreta jartzen du epe luzeko zaintza politiken gobernantzak eta finantziazioak dakarren erronkan.

Bestetik, Euskal Herrian mendekotasunaren arretara bideratutako politika publikoak hiru eredu edo sistema ezberdinek osatzen dituzte. Behar eta arrisku sozialak antzekoak izan arren, EAEk, Nafarroako Foru Erkidegoak eta Ipar Euskal Herriak osatzen duten eremu geografiko eta kulturean, ongizate sozialera zuzendutako hiru eredu ditugu, bakoitza bere berezitasun politiko eta administratiboekin. Hala ere, lan honetan Espainiako Estatuan garatutako mendekotasun arretaren sisteman eta hortik abiatzen den EAEko ereduan jarriko dugu fokua.

4.1. Mendekotasun Legearen garapena Espainiako Estatuan

Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen laguntzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea²¹ (hemendik aurrera, Mendekotasun Legea) zaintza krisiak eragindako egoerari eta epe luzeko zaintzen premia gero eta handiagoei erantzuteko asmoz sortu zen. Legea gertaera garrantzitsua da, mendekotasun egoeran dauden eta zaintza beharrak dituzten pertsonen arreta eskubidea subjektiboa eta unibertsala dela adierazten duelako, osasuna, hezkuntza eta gizarte segurantzaren eran. Horrela, Legearen asmo nagusia banakoen autonomia pertsonala sustatzea da. Helburu horrekin, Autonomiarako eta Mendekotasunari Arreta Eskaintzeko Sistema sortzen du, zaintza zerbitzuak eta diru prestazioa ematen dituena. Estatuak arautzen ditu epe luzeko zaintzei lotutako legedi eta politikak, baina autonomia erkidegoetako gobernuek, foru aldundiek eta udalek horiek kudeatzeko eskumenak dituzte.

Legeak definitzen duen mendekotasun nozioak pertsona helduen zaintza beharrak soilik hartzen ditu aintzat. Haurtzaroko beharrak haurren babeserako politiken eta hezkuntza sistemaren bitartez bermatzen dira. Hala, Europar Batasunak emandako gomendioak eta definizioak jarraitzen ditu Legeak, eta honela definitzen du mendekotasun-egoera: *“Edozein arrazoi dela medio, eguneroko bizitzarako oinarrizko jardueretarako beste pertsona baten laguntza behar duen pertsonaren egoera”*. Gainera, baremo bakarra finkatzen du Estatu osoan pertsona bakoitzaren mendekotasun egoera neurtzeko. Baremo horrek pertsonak bere kabuz eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko duen gaitasuna eta laguntza beharra neurtzen ditu, hiru kategoria zehatzetan:

20 Europako Zaintza Estrategia. Europako Dokumentazio Zentroa. Granadako Unibertsitatea:
<https://cde.ugr.es/index.php>

21 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zaintzeari buruzkoa. 2006ko abenduaren 15a. BOEren 299. zk., 2006ko abenduaren 15ekoa.
<https://www.boe.es/eli/es/l/2006/12/14/39/con>

1. maila (mendekotasun arina): eguneroko bizitzako oinarrizko jardueraren bat edo gehiago egiteko laguntza behar du egunean behin gutxienez. Hala ere, norbere autonomia pertsonala etengabeko zaintzailerik gabe kudeatzeko gai da.

2. maila (mendekotasun aurreratua): eguneroko bizitzako oinarrizko jardueretarako laguntza behar du egunean bi edo hiru aldiz, baina ez du behar zaintzailea etengabe bertan egotea.

3. maila (mendekotasun handia): eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko laguntza behar du maiztasunez eta, erabateko autonomiaren galera dela-eta, zaintzailearen etengabeko presentzia behar du. Autonomia fisikoa, kognitiboa edo intelektuala erabat galdu duten pertsonen aplikatzen zaie gradu hau.

Hasieran, legeak ekarriko zituen aukera eta aurrerabideen inguruko espektatiba politikoak eta sozialak altuak izan ziren. Hala ere, zailtasun handiak izan ditu arreta unibertsala eta kalitatezkoa bermatzeko. Alde batetik, krisi ekonomiko-finantzarioaren eta austeritate politiken testuinguruan onartu eta garatu zen legea. Horrek zaintza sistemaren hedapena geldiarazi zuen, eta horretara bideratutako finantziario publikoa murriztu egin zen. Horren adierazlea da Slavina Spasova politologoak eta haren kolaboratzaileek egindako azterketaren emaitza (Spasova, 2018): Barne Produktu Gordinean epe luzeko zaintzaren finantziario publikoak hartzen duen pisua kontuan hartuz gero, Espainiako Estatuak azken-aurreko postuan dago europar herrialdeen artean, Errumaniaren aurretik. Bestetik, Espainiako Estatuak autonomia erkidego bakoitzak dituen eskuduntzak eta Legeak ezarritako oinarrienganako konpromiso-maila ezberdinak izan dira. Hala, Autonomiarako eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren garapena ezberdina izan da tokiko gobernuen arabera, eta horrek eragin du Estatuan, orokorrean, zaintza sistema desorekatua eta malkartsua izatea.

Halaber, Legeak zaintza eskubide subjektiboa eta unibertsala dela adierazi arren, azken finean, familientzako laguntzak eta etxeko zaintzaileak kontratatzeke prestazio ekonomikoak sustatu ditu, zaintza zerbitzuak baino neurri handiagoan (Martínez-Buján, 2014). Hortaz, ez du ekarri familia nuklear eta heterosexuak zaintzaren eginkizunetik bereiztea. Aitzitik, emakumeek epe luzeko zaintzaren eta, bereziki, adinekoen zaintzaren ardura hartzen dute beren gain, eta, lan batzuk merkaturatu arren, migratutako emakumeei esleitzen zaie sarritan zaintzaren ardura, modu prekarizatuan. Horretaz gain, oraindik ere, epe luzeko zaintza politiken arrakasta eta mugak eztabaida iturri dira iritzi publikoan. Izan ere, jendartean ohikoa da sistemaren eraginkortasunik eza, zaintza zerbitzuetara sarbidea izateko luze itxaron beharra, zerbitzuen egokitasunik eza eta aurrez aurreko zerbitzuen gaintik zaintzarako dirulaguntzak gailendu izana kritikatzeko.

4.2. EAEko mendekotasun eta zaintza sistema

EAEko sistemaren oinarrian dago autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen laguntzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea. Hala ere, EAEk ezaugarri propioak dituen ongizate soziala du epe luzeko zaintzak antolatzeko (Martínez-Buján, 2014). Zehazki, mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako arreta bi lege nagusiren bitartez egikaritzen da. Batetik, 39/2006 Legea, mendekotasunaren arreta eta autonomia pertsonala sustatzea dagokiona. Bestetik, 12/2008 Legea, gizarte-zerbitzuena. Lehenengoa estatuko legea da eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako zerbitzuak eta prestazioak arautu eta finantzatzen ditu, Eusko Jaurlaritzarekin batera. Bigarrena, aldiz, Autonomia Erkidegoko legea da, eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak gizarte zerbitzuen sistema autonomikoaren bidez artatzea ahalbidetzen du.

Mendekotasun egoeran dauden pertsonen zuzendutako zerbitzuen eta diru prestazioen katalogoa Mendekotasun Legeak zein Gizarte Zerbitzuen Legeak jasotzen dute. Zerbitzuak izaeraren arabera

bereizten dira: lehen mailakoak eta bigarren mailakoak. Horien eskuduntza banatuta dago EAEn, udalen eta foru aldundien artean. Eusko Jaurlaritzak sistema osoa koordinatzen du eta telelaguntza zerbitzuaren eskuduntza dauka.

Lehen mailako arreta zerbitzuek mendekotasun egoera arinei eta intentsitate baxukoei ematen diote erantzuna, eta prebentziora ere bideratzen dira. Horien arduradunak udalak dira. Besteak beste, etxez etxeko laguntza zerbitzuak, eguneko arreta zerbitzuak, ostatu zerbitzuak edota garapen urria duten esku hartze psikosozialerako zerbitzuak osatzen dituzte.

Bigarren mailako arreta zerbitzuak, aldiz, mendekotasun maila eta zaintza behar jarraituagoak dituzten pertsoneri zuzendutakoak dira. Foru aldundien eskumenekoak dira. Bigarren mailako arreta zerbitzuek honako hauek barnebiltzen dituzte: eguneko eta gaueko zentroak, egoitzak, senide eta zaintzaileentzako atsedeen zerbitzuak, laguntza teknikoak eta egokitutako garraio zerbitzuak.

Diru prestazioen artean familia barruko zaintzarako eta zaintzaile ez-profesionalentzako laguntza, asistentzia pertsonalerako eta laguntza produktuak erosteko prestazioa, norbere etxebizitza eta ibilgailuan egokitzapenak egiteko edota zerbitzuari lotutako prestazioak daude. Dirulaguntzek protagonismo berezia dute EAEko sisteman, izan ere, senideek egindako zaintza lana konpentsatzen dute, eta horrek zaintzaren izaera *familista* indartzea ekarri du; ondorioz, zaintza zerbitzuetara bideratutako finantziario publikoa gutxitu eta merkantilizatu egin da (Martínez-Buján, 2014).

5. Zaintza Sistema Publiko Komunitario baterantz

Bizi itxaropena inoiz baino luzeagoa da gaur egun. Horrek eragin zuzena izan du zahartzarora bizi eta ulertzeko eran. Era berean, zaintza beharrek gora egin dute, zahartzarora mendekotasunarekin zuzenean lotu ezin bada ere, bizitzaren etapa horretan besteen beharra areagotzen delako. Zaintza eskaria asetzea, ordea, ez da erraza. Hala, aldaketa demografiko, sozial, ekonomiko eta politikoei agerian utzi dute orain arteko zaintza antolaketa eredu krisian dagoela. Testuinguru horretan Autonomiarako eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistema sortu zen Espainiako Estatuan. Haren hastapenetik hamabost urtera, COVID-19aren pandemiak eredu horren gabeziak inoiz baino ageriago azaleratu zituen.

Autonomiarako eta Mendekotasunari Arreta Eskaintzeko Sistemak zaintza beharren hornidura unibertsala izatea zuen helburu, zaintza eskubide subjektiboari erantzuna emango ziona. Hala ere, ez du hasierako helburua osotasunean bete. Oraindik ere, familiak askotariko baliabideak erabiltzen dituzte senitartekoak etxean artatu ahal izateko. Besteak beste, etxeko langileak kontratatzen dituzte, sarritan emakume migratuak, baldintza prekarioan lan egiten dutenak. Horrek agerian uzten ditu zaintzaren izaera koloniala eta ipar globaleko eta hego globaleko herrialdeen arteko botere-harreman desorekatuak. Era batean edo bestean, zaintza lanek emakumeen esku egoten jarraitzen dute ia bere osotasunean. Horrela da ez soilik etxeko zaintzan, zerbitzuetako langileen artean ere. Gainera, gogoratu behar da zaintzak jendarte aitortza eskasa duela, eta hori are nabarmenagoa dela adineko pertsonen eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzan, haurrenean baino.

Zaintza ereduaren inguruko eztabaida gero eta presenteago dago bai jendartean bai agenda politikoan, COVID-19ak eragindako osasun krisiaz geroztik. Zahartzarora eta zaintza dira XXI. mendeko erronkak, dudarik gabe. Erronka horiei era batera edo bestera ematen zaien erantzunak jendarte eredu bat edo bestea bultzatuko du. Hala, Europako estrategia eta politikaren bidetik, etorkizuneko helburu estrategikoak dira norbere etxean edo "norbere etxean bezala" bizitzea eta zaintza jasotzea ahalbidetuko duten politikak. Feminismoak, ordea, tentuz egiten die so proposamen hauei, zaintzak emakumeen erantzukizun izaten jarraitzea indartu dezaketelako. Horri aurre egiteko, feminismoak zaintza sistema publiko-komunitarioaren aldeko apustua egiten du.

Sistema publiko-komunitarioaren aldeko apustua eginez, zaintza eskaintzea eta jasotzea eskubide unibertsala dela eta baldintza duinetan egitea bermatu behar dela adierazten da. Gainera, zaintza beharrak zaintza behar duen pertsona bizi den lekuan bete behar dira eta tokiko baldintzei erantzun behar die, bai zaintza beharra duten pertsonen egoera indibidualei, bai haien senitartekoen egoerei zein zaintza hori eskaintzen den auzoaren, udalerrriaren edo hiriaren berezitasunei ere. Hori horrela, komunitatea agente garrantzitsua da zaintza sisteman, batez ere babes sareak garatzeko unean eta hauskortasun egoeren detekzio eta prebentzioan. Hala, komunitatea zaintza sistema birformulatzeko aukera gisa ere irudikatu da, Autonomiarako eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren mugak gainditu eta zaintza beharrak asetzeko orduan familiaren erantzukizuna lausotuko duena. Zaintza eskaini eta jasotzeko eremua etxeetatik harago zabaldu du honek.

Zaintzaren antolaketa sozialean komunitatearen parte hartzeak nola eragingo duen ikusteke dagoen arren, aurreikus dezakegu arriskuak ere badituela. Aukerak soilik aldarrikatzeak komunitatearen idealizazioa eragin dezake. Komunitatean harremanak ez dira beti harmoniatuak izaten, eta beraz, gatazkak kudeatzeko kolaborazioa eta elkarrekikotasuna beharrezkoak dira. Horrez gain, komunitatea emakumeek familian egiten zituzten zaintza lanak egiteko eremua bihurtzeko, eta, horrenbestez, zaintza lanen feminizazioa berrindartu eta kolektibizazioa oztopatu daiteke. Izan ere, komunitateak askotariko formak hartzen ditu, kontraesanen eta, askotan, gatazken gainean eraikitzen da. Beraz, zaintza lanak banatzeko eta zaintza ematen zein jasotzen dutenak ahalduetzeko eremu bihurtzeko horretan arreta jartzea eskatzen du. Komunitateak zaintza lanak demokratizatzei aukera ematen du, betiere banaketa zaintza lanen ardura duten pertsonen eta agenteen artean era parekidean egiten

bada. Horrek esan nahi du zaintzaren horniduran estatuak bere gain hartu behar duela dagokion ardura. Hau da, kalitatezko zerbitzuak eskaini behar ditu, unibertsalak eta publikoak, beharra duten pertsona guztiek beharra dutenean erabiltzeko modukoak, itxarote zerrendarik gabe.

Halaber, zaintza sistema publiko-komunitarioa garatzearekin batera, askotariko adineko pertsonak gizartean duten lekua eta egunerokoan egiten duten ekarpena ikustaraztea garrantzitsua da interdependentzian oinarritutako jendartea bultzatzea nahi badugu. Horrek, zahartzaroa aukeraz betetako eta parte hartze sozial eta politikorako etapa moduan bizitzeko aukera eman dezake. Hau da, zahartzaroa modu duinean eta autonomoan bizitzea ahalbidetu dezake, adineko pertsonak zer nahi duten dakiten eta erabakiak hartzeko gaitasuna duten subjektuak direla onartuz. Adinekoen parte hartzea, ahalduntzea eta protagonismoa bultzatzea, *adinkeriar*i aurre egiteko estrategia ere bada.

Azken finean, zaintza sistema publiko-komunitarioak pertsonengan, harremanetan eta komunitatean ardaztutako zaintza eredua bultzatzen du. Hala, epe luzeko zaintza duintzea du helburu, egunerokoan autonomia mugatua daukaten pertsona eta talde konkretuez harago, mendekotasuna eta zaintza beharra gizaki ooren ezaugarri moduan, eta beraz, bizi baldintza komun gisa ulertuz. Ikuspegi hori barneratzeak zaintza politiken premian eta zaintzaren birbanaketan arreta handiagoa jartzea ekarriko luke. Era berean, asistentzian oinarritutako zaintza eredutik partaidetzazko eredura jauzi egiteko aukera ere emango luke.

6. Erreferentzia bibliografikoak

- BETTIO, Francesca, SIMONAZZI, Annamaria eta VILLA, Paola (2006): Change in care regimes and female migration: The drain' in the Mediterranean. *Journal of European Social Policy*, 16(3), 271-285.
- CAMPILLO, Inés (2014): Desarrollo y crisis de las políticas de conciliación de la vida laboral y familiar en España (1997-2014). Un marco explicativo. *Investigaciones Feministas*, 5, 207-231.
- COMAS-D'ARGEMIR, Dolors eta BOFILL-POCH, Silvia (arg.) (2022): *Cuidar a mayores y dependientes. En tiempos de la covid-19*, Tirant lo Blanch, Valentzia.
- DALY, Mary eta LEWIS, Jane (2000): The concept of social care and the analysis of contemporary welfare states. *The British Journal of Sociology* 51(2), 281-298.
- DEL BARRIO, Elena; MARSILLAS, Sara eta SANCHO, Maite (2018): Del envejecimiento activo a la ciudadanía activa: el papel de la amigabilidad. *Aula Abierta* 47(1), 37-44.
- FISHER, Berenice eta TRONTO, Joan (1990): Toward a Feminist Theory of Caring, hemen: ABEL, Emily K. eta NELSON, Margaret K. (arg.), *Circles of Care: Work and Identity in Women's Lives*, SUNY Press, Albany, 36-54.
- GÁLVEZ, Lina eta RODRÍGUEZ, Paula (2011): La desigualdad de género en las crisis económicas. *Investigaciones Feministas*, 2, 113-132.
- HOCHSCHILD, Arlie Russell (2001): Las cadenas mundiales de afecto y asistencia y la plusvalía emocional, hemen: Hutton, WILL eta Giddens, ANTHONY (arg.), *En el límite: La vida en el capitalismo global*, Tusquets, Bartzelona, 187-208.
- LEGARRETA, Matxalen eta SAGASTIZABAL, Marina (2020): *Tiempo, ciudadanía y desigualdades. Una aproximación a los usos del tiempo y al derecho al tiempo propio*, Bartzelonako Udala, Bartzelona.
- LEWIS, Jane (2002): Gender and welfare state change. *European Societies*, 4(4), 331-357.
- MACINNES, John eta PÉREZ-DÍAZ, Julio (2008): La tercera revolución de la modernidad; la revolución reproductiva. *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, 122, 89-118.
- MARTÍNEZ-BUJÁN, Raquel (2014): Los modelos territoriales de organización social del cuidado a personas mayores en los hogares. *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, 145, 99-126.
- MOGOLLON GARCÍA, Irati eta FERNÁNDEZ CUBERO, Ana (2019): *Arquitectura del cuidado. Hacia un envejecimiento activista*, Icaria, Bartzelona.
- NAYAK, Anoop (2023): Decolonizing Care: Hegemonic Masculinity, Caring Masculinities and the Material Configurations of Care. *Men and Masculinities*, 26(2), 167-187.
- PÉREZ DIAZ, Julio (2010): El envejecimiento de la población Española. *Investigación y Ciencia* (410), 34-42.
- PÉREZ OROZCO, Amaia (2010): Diagnóstico de la crisis y respuestas desde la economía feminista. *Revista De Economía Crítica*, 9, 131-144.
- RAGHURAM, Parvati (2016): Locating Care Ethics Beyond the Global North. *ACME: An International Journal for Critical Geographies*, 15(3), 511-533.
- RAZAVI, Shahra (2007): *The political and social economy of care in a development context. Conceptual issues, research questions and policy options*, United Nations Institute for Social development, Geneva.
- ROZANOVA, Julia (2010): Discourse of successful aging in The Globe & Mail: Insights from critical gerontology. *Journal of Aging Studies*, 24(4), 213-222.
- SPASOVA, Slavina; BAETEN, Rita eta VANHERCKE, Bart (2018): Challenges in long-term care in Europe. *Eurohealth*, 24 (4), 7-12.

1. **Garapenari buruzko pentsamenduaren bilakaera: teoriak, estrategiak eta adierazleak.** Luis Guridi, Hegoa Institutua Ekonomia Aplikatua I Saila. 2017.
2. **Garapena eta iraunkortasuna: bilakaera, bateragarritasuna eta ikuspegiak.** Iker Etxano Gandariasbeitia, Ekonomia Aplikatua I Saila, UPV/EHU. 2017.
3. **Garapena feminismitik aztertzen.** Yolanda Jubeto Ruiz, Mertxe Larrañaga Sarriegi, Hegoa Institutua, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
4. **Garapenerako lankidetzeta eta bere bilakaera.** Irati Labaien Egiguren, Jorge Gutiérrez Goiria, Hegoa Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
5. **Amildegari so: krisi ekosozialari aurre egiteko zenbait oinarri.** Joseba Azkarraga Etxagibel, Soziologia Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
6. **Migrazioak eta garapena Win-win agertokia posible ote?** Gorka Moreno Márquez, Xabier Aierdi Urza, Ikuspegi – Euskal Immigrazioaren Behatokia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
7. **Ekonomia soziala: Ikerketa-objektua eta analisirako lanabesak.** Enekoitz Etxezarreta Etxarri, Juan Carlos Pérez de Mendiguren Castresana, Ekonomia Aplikatua I Saila. Gezki Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Enpresen Antolaketa Saila. Hegoa Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
8. **Globalizazioa eta tokiko garapena.** Mikel Zurbano, Elena Martínez Tola, Xabier Gainza, Pablo Arrillaga, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea.
9. **XXI. mendeko pobrezia. Benetan ezabatzeko proposamenak.** Alfonso Dubois Migoya, UPV/EHUko irakasle erretiratua, Hegoa Institutua.
10. **Elikadura-sistemak: Elikadura Burujabetzaren eta Agroekologiaren estrategia askatzaileak.** Efen Areskurrinaga Mirandona, Ekonomia Aplikatua I UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Mirene Begiristain Zubillaga, Finantza Ekonomia II UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Eduardo Malagón Zaldua, Ekonomia Aplikatua V UPV/EHU Hegoa Institutua.
11. **2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak: jatorria, edukia eta jarraipena.** Andrés Fernando Herrera Herrera, HEGOA Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
12. **Gobernantza eta herritarren partaidetza.** Jone Martínez-Palacios, Andere Ormazabal Gaston, Igor Ahedo Gurrutxaga, EHUko Politika Zientzia eta Administrazio Saileko kideak eta demokrazia partizipatiboari buruzko Parte Hartuz ikerketa-taldeko ikertzaileak.
13. **Gatazka armatuak, bakea eta garapena.** Itziar Mujika Chao eta iker zirion landaluze, UPV/EHUko Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia Saileko irakasleak, eta Hegoa Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuko ikertzaileak.
14. **Finantza etikoak, ekonomia solidarioa sustatzeko tresna ekonomikoak eta politikoak.** Cristina de la Cruz-Ayuso, Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea. Pedro Arrupe Giza Eskubideko Institutua.
15. **Merkatu soziala: Ekonomia Solidarioa hedatzeko estrategia.** Carlos Askunze Elizaga, REAS Euskadi. María Angeles Díez López, UPV/EHUko Hegoa Institutua eta REAS Euskadi.
16. **Kontabilitate Finantzarioaren begirada zabalduz Gizarteari eta Naturari buruzko informaziora. Gizarte Kontabilitatearen jatorria, eboluzioa eta etorkizuneko erronkak.** Ainhoa Garayar, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Maider Aldaz, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Igor Alvarez, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Jone Arocena, Gestoría Aguirre Gestión.

17. Txina: Garapen eredia birbideratzea eta munduko ekonomian zeregin berria. Juan Barredo-Zuriarrain, Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Aplikatua I Saileko irakasle laguntzailea. Ricardo Molero Simarro, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Egitura Ekonomikoko eta Garapenaren Ekonomia Saileko irakaslea.
18. Happykrazia: psikologia positiboaren hedapena eta bizitzaren psikopatologizazioan duen eragina. Maria Lopez Castillo, HEGOA/EHUko Globalizazioa eta Garapena Masterreko ikasle ohia. Galdakao-Usansolo Ospitaleko erizaina.
19. Herri Administrazioaren erosketak: berdeak, sozialak, berritzaileak... arduratsuak Artizar Erauskin, Ekonomia Aplikatua I Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
20. Klima-aldaketari buruzko hitzaurrea: inpaktuak eta egokitzapena. Elisa Sainz de Murieta, Basque Centre for Climate Change (BC3), 48940 Leioa. Marta Escapa¹, Basque Centre for Climate Change (BC3), 48940 Leioa, Analisi Ekonomikoko Saila, EHU.
21. Sumak kawsay, buen vivir, bizitze ona: Garapenari alternatibean bila. Unai Villalba-Eguiluz, UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua Saileko irakasle-ikertzailea. Ekonomia eta Enpresa Fakultatea-Araba.
22. Errenta eta aberastasun banaketaren desparekotasuna munduan. Patxi Zabalo Arena. Ekonomia Aplikatuko Institutua eta Hegoa Institutua, UPV/EHU.
23. Pobrezia generoaren ikuspegitik aztertze gakoak. M^a Luz de la Cal Barredo. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. Lan Harremanen eta Gizarte Lanaren Fakultatea.
24. Nazioarteko merkataritza globalizazioaren garaian: aurrekariak, ezaugarriak, arauak, eztabaidak, eta ingurumariak. Eduardo Bidaurrezaga Aurre, Elena Martinez Tola. Hegoa-UPV/EHU.
25. Turismoa garapen-tresna gisa lurralde pobretuetan. Josu Benito Andikoetxea. Garapena eta Nazioarteko Lankidetzeta Masterreko ikasle ohia. HEGOA Institutua UPV/EHU.
26. Etxebizitza beharra eta ekonomia kolaboratiboa: cohousing fenomeno. Maddi Montero. Ekonomia eta Enpresa zientzietan Graduatua da. Aitziber Etxezarreta. Ekonomian doktorea eta UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua Saileko irakaslea da, eta GEZKiko (Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua) idazkaria.
27. Megaproiektuak Hazten ari den fenomeno korporatibo baten ikuspegi globala. Gonzalo Fernández. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria. Erika González. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria. Juan Hernández. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria. Pedro Ramiro. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria.
28. Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza edo itxaropenaren alde borrokatze erroka. Gema Celorio Díaz. Hegoaren Hezkuntza Taldea. Juanjo Celorio Díaz Hegoaren Hezkuntza Taldea. Amaia del Río Martínez Hegoaren Hezkuntza Taldea. Iris Murillo Hidalgo Hegoaren Hezkuntza Taldea.
29. Komunikazioa eta garapena: joan-etorriko bidaia bat. Laura Feal Sánchez.
30. Munduko ekonomiaren erroka demografikoak. Ángeles Sánchez Díez. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa.
31. Zaintza eta zahartzarora: XXI. mendeko errokkak. Matxalen Legarreta-Iza. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Uzuri Castelo Moñux. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Alaitz Uriarte Goikoetxea. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Maider Barañano Uribarri. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Marina Sagastizabal Emilio-Yus. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.

